



HOSTOAK LURRARI




Haizearen laztanak, curiaren negarra,
eguzkiaren muxua, ihintzaren kexua,
ilunaren hutsunea, maitasunaren lorea,
egunaren bizitza, gauaren lasaia;
a zein amets dudan nire begien aurrean!
Nire begi ameslariek, mundua '
margotzen duten kolorea, hain da ederra eta!
Ikusi udaberriaren bitxi dizdiradunak
eta entzun udazkeneko garraxi launak,
maite mundua, eta edertasunez bete,
nire kabia bait da;
nire bizi az defendatu eta gorde
heriotza heltzean nire ariman,
heldu nire esku ikustezinez,
eta ez utzi nire bihotzaren epeletik aldentzen,
ureztatu bere loreak, eta bete bere hutsunea,
udazkena iristean, irrifarre baten atzean,
gorde nire minaren zuloa,
eta haizeak lagunduta oihukatu
zein ederra zaren maitia!




Ni, udazkeneko hosto tristea, zure besoetan,
udaberriko lorea, gorria, txuria, beti kolorez jantzia;
ni zure besoetan, ixilaren amets gordea;
ni zure besoetan... zein ederrak
diren zure besoak, maitia!
Eta behingoz, heriotza heltzean, zure erregina izango naiz,
zure erregina bakar eta ixila, gardena, maitia;
eta ondoren zure zelaian etzango naiz,
zure edertasuna gurtzen, eta ondoren maitia,
gure arimek bat egingo dute, ondoren maitia.






Batzutan denboraren isladak beldurtzen nau,
iluntasunean nagoenean, ixilik, bakarrik,
nire gorputzaren zahartzaroaren deiadarrak entzuten,
zure edertasunaren argiaren itzalean;
batzutan, zure irrifarreak tristetzen nau,
eta nire begiek malko bat ixurtzen dute
minaren minetz eta lurrera erortzen da maitia,
betiko kabira, zure magalera, eta beheruntz begiratzen dut,
eta nere burua ikusten dut isladaturik,
zure malkoan, nere malkoan,
argiaren itzal, bizitzaren islada,
eta irrifarre bihurtzen da nere burua,
zure pozaren irrifarrea, maitia.



Heldu da gunea, haizeari ahotik sua dario,
udazkenaren garraxiak,
zurekin lotzen nauten zuhaitzaren sustraiak
erretzen ditu, zure biziari lotzen nauten
besoak ahultzen dira, zahartzen dira,
eta egia den heriotz misterioetsuan murgiltzen naiz,
loturak desagerturik, hegoak zabalduz, arima bihurturik,
zure zelaiak zeharkatzen ditut,
haizeak bere besoetan kulunkatzen nauela;
zure usaia sentitzen dut maitia, lorectan,
haizean, ametsetan, zeruan...



Malko bat irrifatzen da nire begi ertzetik,
pozaren pozez, eta beheruntz begiratzen dut,
eta ez dut nire burua isladaturik ikusten,
zure malkoan, nere malkoan,
geure buruak bat eginik ikusten ditut maitia,
eta haizeak lagunduta,
alaikiro garraxi egiten dugu:
zein ederra den bizia! ■